

BERBALAGUN,
EUSKARAZ
BERBA EGITEKO



2009

Eman izena
urtarrilaren
27a baino lehen!



943 75 13 04

koordinazioa@pilpilean.com

Begi
bistakoa da!

Euskaraz
eginaz
ikasten da.

Bai,
ezta?

Badakigu-
nok lagundu
ezkero...

Gehiago
izango gara
dakigunak.



Udaleko
Euskara
Zerbitzua

943 75 30 43

euskara@soraluze.net



943 74 14 34

Helduen
Heziketa
Irakurra (EPA)

943 74 14 34



IPARRALDEKO HERRI DANTZEN IKASTAROA

ERDIZKA!

PIKA TA EBATS!

EZKERI ESKUINI!

JAUZI!

Emaila: **Urrats Dantza Taldea**

Iraupena: **Urtarriletik maiatzera, 8 saio**

Lehenengo eguna: **urtarrilak 23, barixakua**

Ordua: **19:30ean**

Tokia: **Plaentxi Herri Ikastetxea**

Antolatzailea:



Laguntzailea:



- Entzutekuak: Fly Shit taldeari elkarrizketa
- Zer Berri: Gaztetzokoa otsailean zabalduko da

soraluzeko
hamabostekaria **191.** alea
2009ko urtarrilaren 16an

pil-pilean

**Erditzea
bide naturaletik**

2. San Blas Opilen Lehiaketa

San Blas

EGUNA: Otsailaren 3an, astelehena

ORDUA: eguerdiko 13:00etan

IZENA EMOTEKO: udaletxera jo

San Blasak onak badira,
epailerik ez da faltako!

Antolatzailea:



Soraluzeko
Udala

Benetako
demokrazia
nahi dugulako

SINATU

aukera
guztien
alde!

Soraluzeko **D3M** plataforma

Euskal Herriak behar duen
**ALDAKETA
DEMOKRAZIA**
3.000.000

D3M
aurrera begira

ATHLETIC-EN PARTIDU BAT IKUSTEA:

50 EURO

PIL-PILEANEKO BAZKIDE EGITEA...

30 EURO URTEAN



PIL-PILEAN
EUSKARA ELKARTEA

EGIN ZAITEZ PIL-PILEANDARRA!

Bete ondorengo datuak eta bidali 27. posta kutxara (20.590 Soraluze), deitu **943 75 13 04** zenbakira, ekarri bulegora (Errabal 15, 1) edo idatzi koordinazioa@pilpilean.com helbidera.

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Posta kodea:

Telefonoa:

Jaiotze-data:

Kontu korrante zenbakia:

Jubilatuen eta 18 urtetik beherakoen urteko kuota 20 eurokoa da.

**BITTOR TREBIÑO****ANDER EPELDE**

UTOPIA

Kaixo Ander:

Berlingo hesia erori zenetik, ezkerreko ideologiek astindu ederrak hartu dituzte, Ander. Harrezkero, entzuten ditugun mezu ofizialen aurrean, eraginkorra izan litekeen kontrako iritzirik ia ez da entzuten. Ideologiak gure burua gertaeren aurrean kokatzeko aukera ematen badigu ere, erreferentziak galtzen ditugunean, Estatua da denon gaineratik jarritz, bere diskurtsoa ezartzen diguna.

Gertaera batzuk izan dira azken denboretan, esandakoa frogatzen dutenak. Nazioarteko Fondo Monetarioko zuzendaria Strauss-Kahn, Madoffek 50.000 milloi dolar lapurtu ondoren, ez dakiela zer gertatu den esan eta ez da ezer gertatzen.

Gurera etorrita, Guggenheimen edo Balenziaga museoan izandako lapurreten aurrean, Miren Azkaratek gobernu-kide guztien maitasuna gertutik sentitzen duela diosku eta ez duela kargua utziko adierazten du.

Krisialdi zikloan, lanpostu asko galdu edo galtzeko arriskuan daudenean, UGTko idazkari nagusiak, Mendez jaunak, "mehatsu" egi ten dio gobernuari esanez, estatuko finantzak kontrolatzen dituztenen alde jarraitzen badu, mobilizazio informatiboak bultzatuz borrokara deituko dituela langileak.

Hauxe da aurrean dugun panorama, Ander. Zer egin honen aurrean? Utopia zer den zehazki jakin ez arren, gizakiok ditugun balioak lantzea eta subjektibitatean sinistea, burokraziari aurre egiteko tresnak izan litezkeela deritzot. ☺

“

Estatua da denon gaineratik jarritz, bere diskurtsoa ezartzen diguna

Bittor Trebiño

Asko gaude aldarrikatzen dugunok muga gabeko mundu aske bat

Ander Epelde

”

Kaixo Bittor:

Indarkeriazko mundu batean bizi gara, non boterea lortzearen batzuk edo zer gauza egiteko eskubidea duten eta beste batzuei, gehientxoei, ostera, arnasa hartzeko eskubidea ere ukatzen diguten. Hemen, gure munduan basoko legea da agintzen duena, oso ondo betetzen delarik bertsolariaren esana, arrazoirik ez dugu gutxi garelako.

Munduan goiz edo berandu arrazoi eta zentzua jarriko da nagusi. Denbora izango da lekuko, ikustea besterik ez dago munduko norabidea nondik doan. Hesi batzuk eraitsi ditugu, eta beste batzuk eraiki ere bai, nahiz eta bitartean samin eta oinaze handiak sortu, horiek ere, utopia zaleak dauden artean egunak zenbaita dituzte.

Guzti horrekin, Bittor hauxe esan nahi dut, mundua ondo eginda dagoela eta denontzako dela, asko gaude aldarrikatzen dugunok muga gabeko mundu aske bat, elkarrenganako errespetuan oinarrituko dena, kultura, hizkuntza, erligio, arraza... besarkatuko duena. Honekin ez dut esan nahi, hau paradisua izango denik, askotan egoismoaren har horrek hondatzen gaitu eta.

Kontuan izan gu (*mendebaldekoak*) ez gara munduaren zilborra, ze, beste batzuk ere, hasiak dira esnatzen eta gu atzean uzten. Nagusitasuna uztea, izan dadila mundu guztia- ren onerako, azken batean beste mundu bat aldarrikatzen dugu eta. ☺

Goguan hartzeko

Ikusi eta sinistu

Gotzon Garate. Euskal atsotitzak



GUTUNAK

Negu gorrian
gaztelekurik
gabe

Kontutan izanda gaztetxoentzat negu garaian ez dagoela egoteko leku egokirik, 2006ko legealdian, Gaztelekua egokitu zen kiroldegian. Bere garaian Ezker Abertzaleak “*partxeotzat*” eta “*elektoraliztatzat*” kalifikatu zuen hartutako neurria.

Ezker Abertzaleak eginiko kritika honek ez zuen inongo oinarririk. Ikusi zen eta gaztetxoek eta beraien gurasoek begi onez hartu zutela udalaren erabakia. 2007. urtean hainbat guraso Gazteria Batzordera etorri ziren; aurreko urtean hartutako erabakia babestu eta berriz ere gaztelekua zabalteko Udalari eskatuz, eta horrela egin zen.

Egun berriz, ez dago Gaztelekurik herrian eta dagoen eguraldiarekin gazteak kale gorrian daude.

Aurreko bi urteetan, azaroan ireki zituen atea gaztelekuak. 2009ko urtarrilean gaude eta Udalaren aldetik ez dago ekimen zehatzik gaztelekuaren inguruan. Gure taldetik pentsatzen dugu ordua dela Udalak zerbait egin dezan egoera honi irtenbide bat emateko. Espero dugu Udalak irtenbidea laister topatuko duela, ez da giro kalean egoteko eta.

SORALUZKO EAJ/PNV UDAL TALDEA

Udaleko Aurrekontuen aurkezpen eguna ondokoak dira:

1. EGUNA: Urtarrilak 23, ostirala
ORDUA: Arratsaldeko 19:00ak
TOKIA: Pleno aretoa

2. EGUNA: Urtarrilak 24, zapatua
ORDUA: Eguerdiko 12:00ak
TOKIA: Pleno aretoa

PIL-PILEAN

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 – 20590 Sorluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Leire Iturbe, Enara Agirre, Jon Basmuri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartea ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Bittor Laskurain

Kontuz politikariak lanean

Sarri entzuten da politikuak kolperik jotzen ez dabela baina garbi dakat politiko profesionalak lau urtian behin behintzat gogotik egitten dabela lan. Tartian hankia larregi ez sartzen eta aldekuak pozik eukitzen saiatzen dira. Askotan esaten da politikuen lana arazuak konpontzia dala, baina egixa zera da, politikuen arrakasta eta porrotak ez dirala konpontzen dittuen arazuen arabera neurtzen, eta bai lortzen di-ttuen botuen arabera: karreterak konpontzia, ospitalak egittia, ondo dago, botuak biltzeko balio dao eta. Zoritxarrez, kontrakuak insultatzia, mutur-muturreko posizinuak mantentzia... honek be botuak biltzeko balio dabe. Hau da, beren jorjala irabazteko egin bihar dabena botuak lortzia da, ez kaminuak konpontzia, ez ospitalak egittia, ezta egixa defendatzia be: krisixan kulpia, indarkerixian kulpia, beti "bestiek" eukitzen dabe, baina eskainuak galtzen diranian, orduan bai, kontuak eskatzen dotsez politikueri. Gure sistemian ezinbesteko problemetako bat besterik ez da hau. Sistema hoberik ez daukagunez goazen guztion artian saiatzera daukaguna ahal dan onduen erabiltzen.

((ENTZUTEKUAK))

FLY SHIT taldiari elkarrizketa

Ibilbide luzia egin dozue. Zenbat urte zoiazie musikia egitten?

Aurten 12 urte egingo dogu elkarrekin jotzen. Urte asko dira baina erritmo nahiko motela dakagu eta holan errezagua da urtiak aurrera egittia.

Ze musika mota lantzen dozue?

Hardcorea zentzu zabalian lantzen dogu, beste estilo batzuen ukituekin. Baina batez be aittatutakua.

Zergaittik?

Taldeko partaide danok gustoko dogun musika estilua dalako.

Zenbatek osatzen dozue taldia?

Lau lagunek osatzen dogu **Fly Shit**. Bergarako, Elorza, Setien eta Ostolaza eta Soraluekua, Heloy.

Argitaratu dozue CD-rik?

Bai, bi disko argitaratu dittugu. Lehenengua Gaztelupeko Hotsak-ekin atera ginuan elkarlanian, ta bigarrena "Bizitza... baina nola bizi?" gure kontura atera ginuan "Creative Commons" lizentziapian.

Creative Commons lizentziari buruz zer azpimarratuko zenukete?

Lizentzia honekin taldiak diskan prozedura osua kontrolatzen dao. Oin 3. lana prestatzen



gabiz ta gure kabus aterako dogu berriz be. Honetan be, "Creative Commons" lizentzia erabiliko dogu; gure musika, egilian eskubidiak ordaindu barik, edozeinek erabili ahal izateko.

Duela 12 urte egin zenuten lehen kontzertua. Zer moduz ibilzarie urteotan?

Oso ondo. Zuzenian jotzia da gustatzen jakuna eta gure diskuetan hori isladatzen dala uste dogu.

Gustura jendian harrera edo erantzunakin, emanaldixetan?

Bai, normalian nahiko publiko fidela dakagula esan ahal dogu. Hurrengo kontzertua, urtarrilaren 31an izango da Erromon.

Hurrengo kontzertua, urtarrilaren 31an izango da Erromon


TXURRUKA JATETXEA

Txurruka auzoa
20590 SORALUZE

T. 943 75 15 81

Hnos. **BENITO ANAIAK**



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Otsailean Gaztetzokoa zabalduko duela jakinarazi du Udalak



Datorren hilean Gaztetzokoa zabalduko duela jakinarazi du Udaleko kultura batzordeburuak. Gaztetzokoa Gila taberna ondoko lokalean jarriko da eta 12-16 urte bitarteko gaztetzokoko aisialdirako eskaintza bideratuko da bertatik.

Hasiera batean asteburuetarako

Udalaren asmoa da gaztetzokokoaren jarduna "herriko gaztetzoko eta aisialdiko taldeekin elkarlanean bideratzea". Udalaren esanetan, "hasiera baten asteburuetan zabaltzea dago aurreikusita baina ez da baztertzen astean zehar zabaltzeko aukera, gainerako eragileen iritzia entzun eta gero". ☺

II. San Blas opilen lehiaketa



Soraluzeko Udalak, San Blas Opilen lehiaketa antolatu du aurten bigarren aldiz. Otsailaren 3an, eguerdiko 12:30ean egingo da, Plaza Barrixan. Lehiaketara norberak egindako opilak baino ezin izango dira aurkeztu. Parte-hartzaileek aurrez eman beharko dute izena Udaletxean bertan edo 943 75 30 43 telefono zenbakian, otsailaren 2rako.

Hurrengo Osoko Bilkura hilak 19an

Arratsaldeko 19:00etan izango da Saio Aretoan eta alderdiek hainbat mozio aurkezteaz gain Espainiako Gobernuari dirulaguntzak eskatzea onartuko da. Dirulaguntza hau, Kiroldagiko aldagelak, frontoia eta zinea konpontzeko izango da eta baita Udalean igogailua jartzeko ere.

Aratosteak prestatzeko bilera

Udaleko Kultura Sailak bilera antolatu du urtarrilaren 26rako, astelehena, arratsaldeko 19:30ean aratosteetako jaietako egitaraua zehazteko. Udalak bilera horretara etortzeko deia luzatu nahi die herriko elkarte, tabernari eta norbaitakoei.



Urte berri zuri on

2009a elurrarekin hasi dugu. Kalea larregi zuritu ez badu ere, inguruko parajea edurtuta egon da zeharo. Hotza ere nabarmen egin du, termometroa 2 gradura jeitsiz. Eskularruak eta bufanda jantzita, asko izan dira inguruko mendietan eguraldiaz gozatu dutenak.





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Berbalagun programaren matrikulazio kanpaina hasi da

Bozka e-postaz

Soraluzeko EAJak, martxoaren leko hauteskundeetan e-posta bidezko bozka emateko epea zabalik dagoela adierazi du. Harremanetan jartzeko, 635 00 81 95 edo 659 06 94 07 telefonoetara deitu.

AHTaren aurka Urbinan egingo den manifestaziorako autobusa



AHT- Gelditu Elkarlanak deituta, zapatuan, urtarrilaren 17an, eguerdiko 12:00etan, manifestazioa egingo da

Urbinan (Araba). Soraluzetik autobusa aterako da, goizeko 10:30etan Estazinotik. Aurrez izena eman behar da, Gaztetxean edo Arrano tabernan dauden zerrendetan

D3M plataformaren sinadura bilketa Soraluzen

Eguen honetan hasita, Udaletxeko zinegotzi gelan izango da sinadura emateko aukera. Urtarrilaren 24a arte, goizero 11:00etatik 13:00etara Udaletxeko ateak zabalik izango dira eta barixakuetan 18:00etatik 20:00etara. Urtarrilaren 24an, zapatua, goizeko 11:30etatik 13:30etara bitartean ere izango dira sinadurak biltzen. Sinatzeko NANA aurkeztea beharrezkoa da.



Gaur egungo berbalagunak.

2009an Berbalagun egitasmoan partaide izateko izen emateko epea zabaldu dute. Euskara hobetu nahi dutenei horretarako aukera eskaintzeko programa da Berbalagun; euskaraz ondo berba egiten dutenak, hobetu nahi dutenekin batu eta berba egiteko. Astean behin, birritan... pasiarra bat emanez, kafe bat hartuz, mendi buelta bat emanez... euskaraz berba egitea. Matrikulazioa urtarrilaren 27ra arte zabalik egongo da eta izena emateko Pil-pileanera, Euskaltegira, Udaleko Euskara Zerbitzura edo EPARA jo daiteke.

Hilaren 28an, elkar ezagutzen

Parte hartzaile berriek, orain artekoek eta koordinatzaileak

leak bilera baten bitartez elkar ezagutuko dute eta programa honi buruzko informazio zabalagoa emango dute. Interesa duzuenontzat, urtarrilaren 28an arratsaldeko 18:00etan izango da bilera Pil-pileaneren bulegoan.

Euskal hiztunen beharra

2006an martxan ipini zen egitasmo honetan bost lagunek dihardute gaur egun. Horietatik bi dira euskaraz betidanik dakitenak. Euskaldun berri batzuk azaldu duten interesari erantzuteko euskaraz ondo berba egiten dutenen parte hartzea eskatu dute arduradunek, euskal hiztunen sarea handituz joan dadin lortzeko. ☺

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

Merkatu Plaza
20590 Soraluze t. 943 75 24 40

eguneroko arraina eta konjelatuak

Juan Mari arraindegia

MAPFRE

SZ SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabolatz, 5-B Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infonegocio.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

ELIZPE Hortz Klinika

GURE ZERBITZUAK
Ortodontzia ikustezina
Inplanteak

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67



Leire eskuman,
bere lankide
batekin

Amatasunari atepak zabaltzen

Erditzeko eta amatasuna bizitzeko milaka modu daude, emakume adina. Aukeratu ahal izatea da kontua.

Leire Sololuze 25 urte ditu eta etxez etxeko emagina da Ingalaterran

Zelan erne jatzun emagina izateko ideia?

Osasun munduan lana egittia nahi nebala argi nekan eta emagintzan espezializatzea gustatzen jatan ideia bat zan. Praktiketari nenguala umiak jaiotzen partuak ikusi eta oso lan berezixa izango zala iruditu jatan.

Zer gogoratzen dozu erditzen lagunduzenun lehenengo aldiaz?

Emagin batentzat lehenengo partua ez da sekula ahazten. Nere lehenengo jaiotzan andria lurrian makurtuta zeguan eta umia etortzen hasi zanian han makurtuta geratzia nahi zebala esan zeban. Koltxoneta bat hartu, lurrian bota eta nerekin zeguan emagina koltxoneta gainian jarri eta berak nere eskuak berian azpitan jarritta lehenengo umia ekartzen lagundu neban.

Zein da zehazki, emagin baten egittekua?

Emaginak emakumia haurdun geratzen dan lehenengo momentutik eta umia izan eta gero arte zaintzen dabe.

Etxia ala ospitala.

Zein da zure ustez, erditzeko leku hobia?

Ingalaterran osasun publikotik eskaintzen dan zerbitzu bat da etxian erditzen laguntzia baina ezin dot esan zein dan hobia. Erditzia oso prozesu pertsonala eta bakarra da, norberak aukeratu bihar dabena.

Bada ezberdintasunik lehenengo eta oingo emaginen artian?

Oso haundixa pentsatzen dot. Gauza guztiak moduan rola eta zereginak asko aldatzen dira dana aldatzen dan moduan. Aintzian emagina izatia herriko andra nagusixenen arteko lana zan. Andra honek esperientzia haundixa edukitzen zeben eta etxera juaten ziran umia ekartzen laguntzera. Garai hauetan emaginak sorginekin erlazionatzen ziran.

Arriskutsua da etxean erditzia?

Arriskua da zerbait gertatzen bada ez zarela ospitalian, medikazino eta pertsonalakin. Konplikazinuak egotia erditze prozesuan ez da horren arrarua eta etxian egon ezkeru ambulanzian eruan egin biharko litzateke.

Zuk aukeran, non erdituko zenuke? zergaittik?

Ez egin kasu larregirik emagin baten erditzeko aukerei, ze uste dot hainbeste ikustiak eta esperientziak erdi zorutzen gaittuela! ejjee. Ni aukeran, etxian egongo nitzake ahal doten denbora guztixan eta gauzak serixo jartzen diranian ospitalera korriketan.

Erditzia oso prozesu pertsonala eta bakarra da





Ezoz Ariznabarreta Umia modu naturalian izatia aukeratu zeban Mendaroko ospitalian

Zergaittik?

Betidanik izan dot buruan erditze naturala izatia nahi nebala. Ez nekixan ia nire gorputzak jasango zeban mina; izan be kalia gauza asko entzuten dira honen inguruan. Baina nahiz eta gogorra izan, azken momentuan gorputzak lagundu egitten dao eta aurrera egittia erabaki nebana.

Trabarik izan zenduan?

Ez, trabarik ez. Alderantziz, laguntza haundixa izan nebana. Izan be, Mendaroko ospitalian erditzeko gela bat prestatu dabe eta bertako emagin batzuk etxietan erditzen be laguntzen dabe. Horregaittik, suertez edo, nere medikua eta emagina guztiz ados agertu ziran eta umia gela horretan izaten lagundu zosten, ez kiromanuan.

Eta nolakua da prozesua?

Erditu baino lehenago minak hasten dira, kontrakzinuak. Nik Mendaron neguan eta egokittutako gelan izatia erabaki nebana, modu naturalian. Umia urtetzeko daguanian jartzen dabe epidurala deitzen jakona baina nik ez nebala nahi esan eta nere gorputzak egin zeban medikamentu horrek itten daben antzerako zerbait. Puntu baten, mina haundixa danian gure gorputzak feromona antzeko bat isurixen dau eta anestesia antzeko efektu bat sortzen dosku emakumeoi. Gainontzekua eza-guna da.

Zer moduzko esperientzia izan da?

Ezin dot hitzez azaldu zer sentitu nebana. Momentu horretan sentimendu asko nahasten dira eta; mina, poza, nekia... Zeozer oso berezixa sentitzen da.

Erditze naturala izan nahi daben emakumiendako, gomendiorik?

Batez be lasai juatia gomendatu notsen, geroz eta lasaixago jua geroz eta errezagua itten dalako. Ahal badabe bikotiak lagunduta juatia eta hau be lasai juatia da onena. Baina batez be, emakumiak dana dalakua ezin badau erditze naturala izan, epidurala eskatzia! ez da ezer gertatzen eta. Horregaittik ez zara ama hobia edo txarragua. Nik uste, "ahaleginduko naiz" pentsatzen jua bihar dala beti.


Arnasketak egitten mina kontrolatzen da



Michaella Weinberg Erditze naturala izan zeban Alemaniako erietxe batian.

Ze aukera dago Alemanian erditzeko?

Alemanian, ospitaletaz aparte jendiak etxian erditzen dao baina badagoz baita be bereziki egokittutako etxe batzuk; nun biharrezko lasaittasunaz gain, erizainak eta emaginak be badauzen. Etxe hauetan, ama izateko daguanari bere buruakin lasai egotia egitten detze.



Nun izan zenun zuk umia?

Nik etxian izatia nahi nebana baina umia uste baino lehenago iritsi zan eta erietxe batian izatia gomendatu zeztan erizain batek. Hasieran penatuta nenguan baina gela erakutsi eta asko gustatu jatan; oso lasai aurkitzen nintzen bertan.

Eta nola izan zan?

Hasieratik nekixan epiduralik ez nebala nahi eta momentu guztixan arnasketak egitten egon nintzan, mina kontrolatu arte. Gainera, epidurala azken momentuan jartzen digute eta ez dao ezertarako balio. Gure gorputzak badaki umia izatekotan daguala eta berak hartzen dao hartu biharreko bidia.

Zer sentitzen da?

Nere gizona autopistan zeguan, Alemaniara bidian eta nere ahizpa eta erizainakin egon nintzan. 36 urte nittuan eta ordu asko pasatzen dira indarra egitten, nekatuta neguan. Baina ez nekixan, jaio arte, haurra neska edo mutila izango zan eta ordu erdiz gainian izan ostian mutila zala esan zezten. Imaginatu... 🌀

Erditze naturalian, "ahaleginduko naiz" pentsatu

ZER TRISTEN DOTSAZU?

Udaleko aurrekontuak onartzeko gutxi falta da. Aurten, lehenengoz, herritarren ekarpenak jasotzeko bilera zabalak egingo dira 23an eta 24an.

Zer pentsatzen jatzu Udaleko aurrekontuetan jendian parte hartzia bultzatzia?

UNAI LARREATEGI

Etxekogizona



Inoiz ez da egin holako-rik eta ondo ikusten dot. Baina, aurrekontuak egin baino lehenago jaso biharko littuzkie jendian ekarpenak. Nik behintzat, bilera horretara juateko asmua daukat, nere iritxiza emoteko.

MARIA JESUS ARANBURU

Etxekoandrea



Ideia ona iruditzen jata jendian iritxiza jasotzia beti be kasu egitten bada-be. Dirua zertan inbertidu bihar dan ondo pentsatu bihar da, herrixak gauza asko bihar dittu eta. Kiroldegixa ondo jartzia adibidez, eta bertako lekuei probetxu ona emotia.

AITOR FERNANDEZ

Mekanikoa



Ideia ona iruditzen jata jendian parte hartzia bultzatzia gai hone-tan. Baina ekarpenei kasu egittia beste kontu bat da. Eztakit bilera horretara juango naizen baina herrixan bada zer hobetu. Umiendako ganorazko jolas parke bat egingo neuke nik esaterako.

ESTER ALTUNA

Etxekoandrea



Bai ondo pentsatzen jata iritxizak jasotzia, baldin eta zeozertarako balixo badau. Nik denboria badaukat agertuko naiz nere ekarpenak emotera, herrixak aldaketa bat bihar dau eta. Gaztiendako guniak sortzia edo kiroldegixa konpontzia bultzatuko neuke nik.

KOMIKIXA



Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2

T. 943 75 16 13

Banatu dira Kontrargi Argazki Rallyko sariak

Iturria: Nerea Isasti



Gabonetan banatu ziren eta Gazteen artean, lehenengo saria Maite Garmendiak irabazi zuen. Bigarren saria Silvia Lascos-ek eraman zuen eta hirugarrena Nerea Nievas-ek. Oinarri digitalean aldiz, J.R. Llavori zumaiarrak irabazi zuen. Bigarrena Oreretako Adolfo Vazquez izan zen eta sail honetan, herriko argazkilari onenan saria, Fernando Oregik irabazi zuen. Honek ere diapositibetan lehenengo saria eraman zuen eta bigarrena Zaldibarko Roberto Madariaga izan zen. Sail honetan, herriko argazkilari onenan saria, Mikel Valerorentzat izan zen.

Urtarrilaren 24an kontzertua Gaztetxean

Hilaren 24an, zapatua, bi talde ari-tuko dira gaztetxean: Eureka Hot IV eta Munlet. Kontzertua, gaueko 23:00ean hasiko da eta sarrerak 3 euro balio du.



Eskultura eta margolanen erakusketa

Alberto Ramirez soraluzetarraren "Itzulerarik gabeko bidea" erakusketa ikus daiteke urtarrilaren 17tik 24ra bitartean kiroldegiko erakusketa-aretoan. Astegunetan 18:00etatik 20:30era eta larunbatetan 12:00etatik 14:30era.

Iparraldeko herri dantzen ikastaroa emango du Dantza Taldeak

Urtarrilean hasi eta ekaineko Erromeria egunera bitartean, Iparraldeko "Murtxikoak" deitzen zaien dantzak ikasteko aukera eskainiko du Urrats Dantza Taldeak. Borobilean dantzatzaren diren herri dantza simple eta errazak dira, pausu jakin batzuek osatutakoak (*erdizka, jauzi, pika, ebats...*). Horietan trebatuko dituzte Urratseko dantzariak bertaratzen direnak.

Urtarrilaren 23an izango da lehen saioa, 19:30ean Plaentxi Herri Ikastetxean. Hurrengoa, hilaren 30ean egingo da eta handik aurrera 15 egunetik behin, 8 saio osatu arte. Izena emateko, Pil-pileanera jo edo bertara azaldu behar da. Ikastaroa dohainik izango da.

Herri dantzak ezagutarazten Duela urte bi 50. urteurrena bete zuen dantza taldeak eta aspaldian galduta zegoen ohitura berreskuratu zuten: Soka Dan-



tza. Iaz Euskal Herrian oso zabaldua dagoen Larrain Dantza irakatsi zuten eta herriko ospakizun batzuetan dantzatu. Aurten Iparraldean jatorria duten baina leku askotara zabaltzen ari diren dantzak aukeratu dituzte. Herri dantzak ezagutzera eman eta zaletasuna piztea da helburua. ☺



Gabonetako protagonistak

Olentzero, Mari Domingi eta Errege magoak Soraluzen izan ziren, etxeko txikienen eskaerak eta eskutitzak jasotzen. Gabonetako oporretan aisialdi eskaintza zabala antolatuta zuten herriko hainbat eragilek; irteerak eta haurrentzat jolas parkea esaterako.

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30ETATIK AUERRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



KM
Desing

Diserriua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Aritz Laskurain binakako txapelketan



Hilaren 12an Eibarko As-telena fontoian **Xala-Laskurain** bikoteak jokatuako partidari 22-10 irabaztea lortu zuten Olaizola II.a eta Mendizabal II.an kontra. Txapelketako lehenengo partidari ez zuten zorte handirik izan eta Tolosan 22-18 galdu zuten Bengoetxea VI.a eta Belokiren kontra.

Hurrengo hilaren 18an

Hurrengo partida datorren domekan, urtarrilaren 18an jokatuko dute Berasaluze VIII eta Beginoren kontra, Tolosako Beotibar frontoian. ☺

Unai Soraluze Errioxako txapeldun judoan

Abenduan izan zen txapelaketa, gabonak baino lehen. 100 kilotik gorako arteen lehiatzen du, Eibarko Kalamua

taldean. Errioxako txapelketan urrezko domina eramatea lortu zuen. Hurrengo lehia Madrilan izango du. ☺



2008ari agur bikaina

Herriko 30 lagun inguruk San Silvestre krosa ospatu zuten abenduaren 31an. Atxa Memoriala zena kendu eta aldarrikapen moduan egiten da lasterketa hau. ☺

EMAITZAK

FUTBOLA

| | |
|-------------------------------|-----|
| Mutriku-Sora (Erreg.N.) | 0-2 |
| Amara Berri K.E.-Sora (Erreg) | 0-0 |
| Sora (Erreg)-Union Txiki | 6-3 |
| Aretxabaleta B-Sora (jub) | 6-0 |
| Zestoa-Sora (kad) | 3-0 |
| Sora (kad)-Lagun onak | 1-9 |
| Arizmendi-Sora (kad) | 3-5 |

PELOTA

| | |
|-----------------------------|----|
| Bengoetxea VI - Beloki | 22 |
| Xala - Laskurain | 18 |
| Olaizola II - Mendizabal II | 10 |
| Xala - Laskurain | 22 |

AGENDA

FUTBOLA

Domeka 18, 15:45etan Ezozin Sora (Erreg.N)-Allerru
Zapatua 17, 15:30etan Martutenen Martutene-Sora (Erreg.M.)
Zapatua 17, 15:45etan Ezozin Sora (jub)-Eibartarrak
Zapatua 17, 11:00etan Ezozin Sora (kad)-Aloña Mendi

PELOTA

Domeka 18,
Berasaluze VIII - Begino
Xala - Laskurain

Domeka 25,
Olaizola I - Patxi Ruiz
Xala - Laskurain

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. T. 943 75 17



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

**Errekalde 21
20590 SORALUZE**

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

MARE ILEAPAINDEGIA



**ESTETIKA
SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE


GAZTELUPE taberna

tel: 943 75 20 81






ZORION AGURRAK



Alain Lopez Pellitero
Urtarrilaren 20an 3 urte
Zorionak eta urte askotarako!
Muxu asko etxekoan partez.



Iria Martinez Rubio
Abenduaren 27an 9 urte
Zorionak pitusi! Ondo
ondo pasa zure egunean
etxekoan partez!



Odei Valdivieso Argarate
Urtarrilaren 9an 5 urte
Zorionak eta patxo handi bat
gurasoen partez!




... ..
Urtarrilaren 2an 2 urte
Zorionak politta!!
Gurasoen partez, baina
batez ere Iraian partez!

Amama Dolores
Abenduan 27an
Miren Muguruza
Urtarrilaren 21ian
Zorionak eta muxu pilla
bat etxekoan partetik.



Ione Garai Etxaniz
Urtarrilaren 20an 21 urte
Zorionak eta ondo pasa
zure egunean!



Kostia Dyachenko
Urtarrilaren 19an 16 urte
Zorionak mutil handi hemengo
familia eta lagun guztien partez
eta bereziki Maren-en partez
Laister arte!



Imanol Agirre Arrillaga
Urtarrilak 20an 5 urte
Zorionak Potxolo!!
Muxu handi bat
etxekoan partez.



Nerea Atxotegi
Urtarrilaren 18an 10 urte
Zorionak prexioxa!
Muxu handi bat
etxekoan partez!



**Nikanor Iñurrieta eta
Malen Ugalde Alberdi**
Urtarrilaren 11an 89 urte eta
abenduan 18xan jaixua
Zorionak aittitta!
Ongi etorri Malen!
Birraittitta eta birbiloba
onenak. Patxo bana.



Aimar Cestau eta Maider Castro
Urtarrilaren 19an 7 eta 32 urte
Irail Cestau
Urtarrilaren 22an 16 urte
Gemma Castro
Urtarrilaren 26an 37 urte
Ilune Garcia
Urtarrilaren 29an 2 urte
Zorionak danentzat!

jaiotakoak

MALEN UGALDE ALBERDI
EKAITZ MOYA MAKEDA



hildakoak

CELESTINA ARRIETA LEJARDI
ISIDORO SAVA CARRANZA
CLOTILDE FERNANDEZ VILLAR



LEHIAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► Zeintzuk dira San Blas opilan osagaiak?

- 1- Gurina, irina, arrautzak, ardu txurixia eta anisa
- 2- Gurina, irina, arrautzak, anisa eta azukrea
- 3- Gurina, irina, arrautzak, anisa eta limoia

► Saria: Takolo Pirritx eta Porrotxen liburua eta familien karta joko!!

► Irabazlea: Aurreko alean ez da partehartzailerik egon

► Udaleko txistulari ofizialak...

1936ko gerra hasi aurretik Eusebio eta Pedro Bazausti anaixak ziran eta domeketan ibiltzen ziran Plaza Barrixan girua alaitzen.

ARGAZKI ZAHARRA



EIBARRERA EGUN PASA

Argazkiko kuadrila honek ohitturia zeuken soldadu despedida eta antzerakuetan Eibarrera egun pasa juatia. Domeketan juaten ziran beti, sasoi hartan zapatua be lan eguna zan eta. Goizian autobusa hartu, Eibarren txikiteua jo eta Vista Alegre jatetxian bazkaltzen zebeñ ondoren, bapo egin arte. 1963. urtekua da argazkixa, San Andres Eliza parian ateratakua.

Goian ezkerretik eskumara:

Jesus Mari Ariznabarreta, Ignacio Aranzeta, Oscar Garitano(+), Fabian Gonzalez, Jose Legaristi, Moises Altuna, Jabier Ezenarro(+), Eloy Uriarte, Juan Ignacio Alberdi.

Behian:

Antonio Arostegi, Jose Mari Larrañaga, Juan Cruz Azkona, (*ezezaguna*), Jose Joaquin Sologaistoa

